



EBAZPENA, 2026KO APIRILAREN 30EKOA, HEZKUNTZA SAILEKO LANGILEAK KUDEATZEKO ZUZENDARIARENA, LAN-LEGEPEKO IRAKASLEENTZAT ETA ERLIJIOKO IRAKASLEENTZAT URTEKO MODALITATEKO ADINA DELA-ETA IRAKASTORDUAK MURRIZTEARI BURUZKO DEIALDIA, ETENGABE IREKIA, EZARTZEN DUENA.

RESOLUCIÓN DE 30 DE ABRIL DE 2026, DEL DIRECTOR DE GESTIÓN DE PERSONAL DEL DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POR LA QUE SE ESTABLECE LA CONVOCATORIA, PERMANENTEMENTE ABIERTA, RELATIVA A LAS REDUCCIONES DE HORAS LECTIVAS POR RAZÓN DE EDAD, MODALIDAD ANUAL PARA EL PERSONAL LABORAL DOCENTE Y DOCENTE DE RELIGIÓN.

Hezkuntza Saileko lan-legepeko irakasleen eta hezitzaileen hitzarmen kolektiboan (2025eko azaroaren 6ko EHAA) ezarritakoarekin bat etorriz, 68. artikulua aplikatuko da eta eskola-orduen murrizketarako deialdia egingo da adinaren arabera.

De conformidad con lo establecido en el Convenio Colectivo del personal laboral docente y educativo del Departamento de Educación (BOPV de 6 de noviembre de 2025), se aplicará el artículo 68 y se convocará la reducción de horas lectivas en función de la edad.

Ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko irakasle funtzionarioen lan-baldintzak arautzen dituen akordioa onartzen duen abenduaren 30eko 252/2025 Dekretuaren 55.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, eta Hezkuntza Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 19ko 381/2024 Dekretuaren 11. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, honako hau

En su virtud, de acuerdo con lo establecido en el artículo 55.3 del Decreto 252/2025, de 30 de diciembre, por el que se aprueba el Acuerdo regulador de las condiciones de trabajo del personal funcionario docente no universitario de la Comunidad Autónoma de Euskadi, y teniendo en cuenta lo dispuesto en el artículo 11 del Decreto 381/2024, de 19 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Educación,

EBAZTEN DUT:

RESUELVO:

LEHENA. - Helburua

PRIMERO. - Objeto

Ebazpen honen xedea da adinagatiko lanaldi-murrizketak eskatzeko prozedura ezartzea, bertan ezarritako baldintzetan, urteko irakastorduen murrizteko modalitaterako.

La presente resolución tiene por objeto establecer el procedimiento de solicitud de reducciones de jornada lectiva por razón de edad en los términos establecidos en la misma para la modalidad anual.

BIGARRENA. - Urteko irakastorduen murriztea.

SEGUNDO. – Reducción de horas lectivas anuales.

1.- Aplikazio-eremua.

1.- Ámbito de aplicación.



Deialdi hau honako langile hauei aplikatuko zaie:

a) 59 urte (60 urte bete gabe) dituzten lan-legepeko irakasle edo erlijio irakasle finko, mugagabe eta plaza huts bat betetzen dutenak Haur eta Lehen Hezkuntzan. Ordezko langileek ikasturte osoko kontratua badute bakarrik eskatu ahal izango dute murrizketa hori (horretarako, ikasturte osoko plazatzat hartuko dira irailaren 1eko hasierako data eta abuztuaren 31ra arteko iraupena izango duten ordezkapenak), 59 urte badituzte (60 urte bete gabe).

b) Lan-legepeko irakasle eta erlijio irakasle finko, mugagabe eta plaza huts bat betetzen dutenak. Ordezko langileek ikasturte osoko kontratua badute bakarrik eskatu ahal izango dute murrizketa hori (horretarako, ikasturte osoko plazatzat hartuko dira irailaren 1eko hasierako data eta abuztuaren 31ra arteko iraupena izango duten ordezkapenak), 60 eta 64 urte bitartekoak badira.

c) Lan-legepeko irakasle edo erlijio irakasle finko, mugagabe edo plaza huts bat betetzen dutenak. Ordezko langileek ikasturte osoko kontratua badute bakarrik eskatu ahal izango dute murrizketa hori (horretarako, ikasturte osoko plazatzat hartuko dira irailaren 1eko hasierako data eta abuztuaren 31ra arteko iraupena izango duten ordezkapenak), 65 urte beteak badituzte.

2.- Betekizunak

Adierazitako langileek baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Gehieneko irakastorduak esleituta izatea.
- b) Erretiroa hartu arte zerbitzu-eginkizunik edo lanaldi murrizketarik ez izatea.
- c) Beste jarduera batzuetan aritzeagatik (proiektuak,

La presente convocatoria será de aplicación al siguiente personal:

a) Personal laboral docente y docente de religión fijo, indefinido o en vacante. El personal sustituto solo podrá solicitar este permiso si su contrato es de curso completo (a estos efectos se entenderán como plazas de curso completo las sustituciones con fecha de inicio de 1 de septiembre y duración previsible de hasta el 31 de agosto) de Educación Infantil y Primaria que tenga 59 años (no cumplidos 60 años).

b) Personal laboral docente y docente de religión fijo, indefinido o en vacante. El personal sustituto solo podrá solicitar este permiso si su contrato es de curso completo (a estos efectos se entenderán como plazas de curso completo las sustituciones con fecha de inicio de 1 de septiembre y duración previsible de hasta el 31 de agosto) que tenga entre 60 y 64 años cumplidos.

c) Personal laboral docente y docente de religión fijo, indefinido o en vacante El personal sustituto solo podrá solicitar este permiso si su contrato es de curso completo (a estos efectos se entenderán como plazas de curso completo las sustituciones con fecha de inicio de 1 de septiembre y duración previsible de hasta el 31 de agosto) que tenga 65 años cumplidos.

2.- Requisitos

El personal señalado deberá reunir los siguientes requisitos:

- a) Que tengan asignada la jornada lectiva máxima.
- b) Que no tengan concedida ninguna comisión de servicios, ni una reducción de jornada hasta la fecha de su jubilación.
- c) Que no tengan reducción de horas lectivas por dedicación a otras actividades (proyectos,

EGA/AKA, jantokia, zuzendaritza-karguak...) edo osasun-arrazoiengatik irakastorduak ez murriztea erretiroa hartu arte.

d) 65 urte beteta dituzten eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren mendeko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan 15 urte jarraian edo 20 urte etenda eman dituzten funtzionarioek beren urteko irakastorduen erdia murrizteko eskubidea izango dute erretiroa hartu arte, borondatez edo nahitaez. Zerbitzu-denbora laburragoa bada, heren bateko murrizketa izango dute.

e) Murrizketa-orduak ikastetxeko zuzendaritzaren esku jarriko dira. Irakastorduak murrizteko baimena automatikoki luzatuko da, eta baldintzak emakidaren aldi osoan betetzearen baldintzapean egongo da.

3. – Ordu-tegi-murrizketaren xedea eta aplikazio irizpideak.

3.1.- 59 urterekin irakastorduak murriztea

59 urte (60 urte bete gabe) dituzten lan-legepeko irakasle eta erlijio-irakasleek, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako etapetan lan egiten badute, asteen gehienez 2 ordu murriztu ahal izango dute beren irakastordutegia, dagokion etapari esleitutako irakastordutegi osotik. Denbora hori ikastetxeen berezko jardueretan eman beharko da, hezkuntza-administrazioak finkatutako eta ikastetxeko zuzendaritzak zehaztutako artean.

3.2.- 60 eta 64 urte bitarteko irakastorduak murriztea:

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren mendeko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan lan egin duten 60 eta 64 urte bitarteko lan-legepeko irakasle eta erlijio-irakasleek

EGA/AKA, comedor, cargos directivos...), ni por razones de salud hasta la fecha de su jubilación.

d) El personal laboral que tenga 65 años cumplidos y hayan prestado servicios durante 15 años continuados o 20 años interrumpidos en centros públicos no universitarios dependientes del Departamento de Educación del Gobierno Vasco, tendrán derecho a la reducción de la mitad de sus horas lectivas anuales hasta la fecha de jubilación, voluntaria o forzosa. Si el tiempo de servicios es menor disfrutarán de la reducción de un tercio de horas lectivas.

e) Las horas de reducción se pondrán a disposición de la dirección del centro. La autorización de esta reducción de horas lectivas se prorrogará automáticamente, y quedará condicionada al cumplimiento de los requisitos durante todo el período de concesión.

3.- Objeto y criterios de aplicación de la reducción horaria.

3.1.- Reducción de horas lectivas a los 59 años

El personal laboral docente y docente de religión que tenga 59 años, (no cumplidos 60 años) que preste servicios en las etapas de Educación Infantil y Primaria podrá reducir hasta un máximo de 2 horas semanales su horario lectivo, sobre el total del horario lectivo asignado a la etapa correspondiente. Ese tiempo habrá de dedicarse a actividades propias de los centros docentes, de entre las fijadas por la administración educativa y determinadas por la dirección del centro.

3.2.- Reducciones de horas lectivas entre los 60 y los 64 años:

El personal laboral docente y docente de religión que tenga entre 60 y 64 años cumplidos, que haya prestado servicios en centros docentes públicos de enseñanza no universitaria

eskubidea izango dute erretiro egunera arte beren urteko irakastorduen herena murrizteko, dela borondatez, dela nahitaez.

3.3.- Irakastorduak murriztea 65 urtetik gorako langileentzat:

65 urte beteta dituzten lan-legepeko irakasle eta erlijio irakasleek, baldin eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren mendeko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetan 15 urte jarraian edo 20 urte etenda eman badituzte, beren urteko irakastorduen erdia murrizteko eskubidea izango dute erretiroa hartu arte, borondatez edo nahitaez. Zerbitzu denbora laburragoa bada, heren bateko eskola-murrizketa izango du.

3.4.- Araudi orokorra

a) Irakastorduak murrizteko baimena duten langileei irakaskuntzaz kanpoko eginkizunak esleituko zaizkie, kasu bakoitzean esleitutako lanaldi osoa osatu arte.

Honako eginkizun hauek esleituko dira: zeregin osagarrietan laguntzea, proiektu-orduak, jantokiko arduraduna, epaimahaietan parte hartzea eta hizkuntza-eskola ofizialetako azterketa ofizialak zuzentzea, etab. Horrek ez du inola ere ekarriko inolako zereginik egin gabe orduak erabat murriztea.

Ordutegi-murrizketaren aplikazioa ikastetxe behar didaktiko eta antolatzaileekin bat datozen irizpideen arabera egingo da, zuzendaritza-taldeak ezarritakoen arabera.

b) Deialdiaren xedea kontuan hartuta, irakastorduen murrizketa eskola-aldian bakarrik gauzatuko da, azken eskola-egunean amaituko da. Irakastorduak murrizteko baldintza izango da beste irakasle batek ordezkatzeta edo bere gain hartu behar izatea ematen ez dituen irakastorduak.

dependientes del Departamento de Educación del Gobierno Vasco, tendrá derecho, a la reducción de un tercio de sus horas lectivas anuales hasta la fecha de jubilación, sea voluntaria o forzosa.

3.3.- Reducción de horas lectivas para el personal a partir de 65 años:

El personal laboral docente y docente de religión que tenga 65 años cumplidos, que haya prestado servicios durante 15 años continuados o 20 años interrumpidos en centros públicos no universitarios dependientes del Departamento de Educación del Gobierno Vasco, tendrá derecho a la reducción de la mitad de sus horas lectivas anuales hasta la fecha de jubilación, voluntaria o forzosa. Si el tiempo de servicios es menor disfrutará de la reducción de un tercio de sus horas lectivas.

3.4.- Consideraciones generales

a) Al personal al que se le autorice la reducción de horas lectivas, se le asignarán funciones no docentes hasta completar la jornada total asignada en cada caso. Se asignarán funciones tales como: apoyo de tareas auxiliares, horas de proyectos, responsable de comedor, formar parte de los tribunales y corregir exámenes oficiales en las escuelas oficiales de idiomas, etc. En ningún caso supondrá una reducción completa de horas sin realizar ninguna tarea. La aplicación de la reducción horaria deberá realizarse con criterios acordes con las necesidades didáctico-organizativas del centro, establecidas por el equipo directivo.

b) Atendiendo al objeto de la convocatoria, la reducción de horas lectivas se materializará únicamente durante el periodo lectivo, finalizando el último día lectivo.

El disfrute de la reducción de horas lectivas quedará condicionado a que las horas de no impartición de docencia sean sustituidas o asumidas por otra persona docente.

c) Deialdi honen egunean beste jarduera batzuetan (proiektuetan, EGA/AKAN, jantokian, zuzendaritza karguetan...) aritzeagatik irakastorduak murrizten dituzten langileek ikastetxeko zuzendaritzak sinatutako ziurtagiria aurkeztu beharko dute, jarduera noiz utzi duten adierazteko.

d) Urteko modalitatea aukeratu ondoren, ezin izango da metatutako modalitatera aldatu. Urteko gozamina eskatu duten 59 urteko langileek, 60 urte betetzean, pilotutako gozamenera aldatu ahal izango dute, eta alderantziz.

LAUGARRENA.- Eskaerak.

Eskaera egiteko, dagokion inprimakia bete beharko da, eta enpleguaren atarian egongo da eskuragarri.

BOSTGARRENA.- Eskaerak aurkezteko epea.

Deialdi hau urte osoan zehar egongo da irekita, eskatutako adina betetzeko eskaera errazteko. Eskabideak aurkezteko epea ikasturte osoan zehar egongo da irekita, eskatutako adina bete duten edo eskatutako adina bete eta hilabete baino gutxiagora dauden langileentzat.

SEIGARRENA.- Emateari buruzko ebazpena.

a) Eskaerak aztertu ondoren, ebazpena emango da enpleguaren atariaren bidez.

b) Murrizketa horri ezin zaio uko egin.

c) Urteko modalitatean irakastorduak murrizteko, murrizketa ordeztu egin beharko da.

c) El personal que a fecha de la presente convocatoria tenga reducción de horas lectivas por dedicación a otras actividades (proyectos, EGA/AKA, comedor, cargos directivos...), tendrá que adjuntar certificado firmado por la dirección del centro donde se indique la fecha de cese en dicha actividad.

d) Una vez seleccionada la modalidad anual no se podrá cambiar a la modalidad acumulada. El personal de 59 años que haya solicitado el disfrute anual podrá, al cumplir 60 años, optar por cambiar a disfrute acumulado, y viceversa.

CUARTO.- Solicitudes.

La solicitud se realizará mediante la cumplimentación del correspondiente formulario que se encontrará disponible en el portal de la persona empleada.

QUINTO.- Plazo presentación solicitudes

Esta convocatoria permanecerá abierta durante todo el año para facilitar la solicitud al cumplimiento de la edad requerida. El plazo de solicitudes estará abierto a lo largo de todo el curso escolar para el personal que haya cumplido la edad requerida o esté a menos de un mes de cumplir la edad requerida.

SEXTO.- Resolución de concesión.

a) Una vez analizadas las solicitudes se procederá a la Resolución a través del portal de la persona empleada.

b) La concesión de esta reducción tiene carácter irrenunciable.

c) La concesión de reducción de horas lectivas, en su modalidad anual, quedará supeditada a la cobertura de la sustitución de la reducción. Por

Beraz, ordezkapena betetzen den egunetik aurrera murriztuko da eskola-ordutegia.

ZAZPIGARRENA.- ARAUBIDE IRAGANKORRA.

Gaur egun, aldi baterako egoera batean gaude, eta ezin dira txanda-kontratuak izapidetu. Beraz, behin-behineko eta aldi baterako izaerarekin, txanda-kontratuak esleitu arte, deialdi honetan parte hartzeko aukera ematen zaie erretiro partzialaren baldintzak betetzen dituzten eta hori lortu ezin duten pertsonen. Hala ere, behin deialdi hori onartuta, txanda-kontratudun erretiro partziala hartu beharko dute nahitaz. Erretiro partzial hori bateraezina izango da deialdi honekin.

ZORTZIGARRENA. - DATUEN BABESARI BURUZKO INFORMAZIO OINARRIZKOA

Zure datu pertsonalak tratatu egingo dira, eta "Langileen kudeaketa" izeneko tratamendu-jardueran sartuko dira.

Arduraduna: Langileriaren Kudeaketa Zuzendaritza, Hezkuntza Saila.

Helburua: Irakasleen eta irakasle ez diren langileen kudeaketa.

Legitimazioa:

a) Tratamendua beharrezkoa da interesduna parte den kontratu bat gauzatzeko edo interesdunaren eskariz kontratuaren aurreko neurriak aplikatzeko.

b) Tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean.

lo tanto, la reducción del horario lectivo será efectiva desde la fecha en que quede cubierta su sustitución.

SÉPTIMO.- RÉGIMEN TRANSITORIO

En la actualidad nos encontramos en una situación temporal en la que la tramitación de los contratos de relevo no es posible. Por lo tanto, y con carácter provisional y temporal, hasta la adjudicación de los contratos de relevo, se posibilita la participación en esta convocatoria a las personas que cumplan los requisitos de jubilación parcial y no puedan acceder a la misma. No obstante, una vez aprobada esta convocatoria deberán acogerse obligatoriamente a la jubilación parcial con contrato de relevo. Dicha jubilación parcial será incompatible con esta convocatoria.

OCTAVO. - INFORMACIÓN BÁSICA SOBRE PROTECCIÓN DE DATOS

Sus datos de carácter personal serán tratados e incorporados a la actividad de tratamiento denominada: Gestión de personal.

Responsable: Dirección de Gestión de Personal, Departamento de Educación.

Finalidad: Gestión de personal docente y no docente.

Legitimación:

a) Tratamiento necesario para ejecutar un contrato en el que el interesado o interesada es parte o para la aplicación a petición de este de medidas precontractuales.

b) Tratamiento necesario para el cumplimiento de una misión realizada en interés público o en el ejercicio de poderes públicos conferidos al responsable del tratamiento.



c) 2/1993 Legea, otsailaren 19koa, Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Unibertsitateko kanpoko Irakaskuntzarako Irakasleen Kidegoei buruzkoa.

d) 5/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.

e) 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena.

Hartzaileak:

a) Estatuko Administrazioako beste organo batzuk.

b) Autonomia Erkidegoko beste organo batzuk.

Eskubideak: Datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita informazio gehigarrian jasotzen diren bestelako eskubide batzuk ere.

Informazio osagarria: Gure web-orrian kontsulta dezakezu

Datuen Babesari buruzko informazio gehigarri eta zehaztua:

<https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/048100-cap2-eu.shtml>

Araudia:

a) Datuen Babeserako Erregelamendu Orokorra (https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/normativa_dpd/eu_def/adjuntos/RGPD-2016_0679_eu.pdf).

b) 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa (https://www.boe.es/boe_euskera/dias/2018/12/06/pdfs/BOE-A-2018-16673-E.pdf).

BEDERATZIGARRENA. - Errekurtsoak.

c) Ley 2/1993, de 19 de febrero, de Cuerpos Docentes de la Enseñanza no Universitaria de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

d) Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público.

e) Real Decreto Legislativo 2/2015, de 23 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto de los Trabajadores

Destinatarios:

a) Otros órganos de la Administración del Estado.
b) Otros órganos de la Comunidad Autónoma.

Derechos: Usted tiene derecho a acceder, rectificar y suprimir los datos, así como otros derechos que se recogen en la información adicional.

Información adicional: Puede consultar la información adicional y detallada sobre Protección de Datos en nuestra página web: www.euskadi.eus/clausulasinformativas/web01-sedepd/es/transparencia/048100-cap2-es.shtml

Normativa:

a) Reglamento General de Protección de Datos (<https://eur-lex.europa.eu/legalcontent/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>).

b) Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre, de Protección de Datos Personales y garantía de los derechos digitales (www.boe.es/buscar/doc.php?id=BOE-A-2018-16673).

NOVENO. - Recursos.



Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren arabera, ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Administrazio eta Zerbitzuen Sailburuordetzari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Con arreglo a lo dispuesto en los artículos 121 y siguientes de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, contra la presente resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Viceconsejería de Administración y Servicios en el plazo de un mes contado a partir del día siguiente al de su publicación.

Vitoria Gasteizen, 2026ko apirilaren 30ean
En Vitoria-Gasteiz, a 30 de abril de 2026

UNAI NIETO MARIJUAN
LANGILERIAREN KUDEAKETAKO ZUZENDARIA
DIRECTOR DE GESTIÓN DE PERSONAL